

Altzako XI. BERTSOPAPER LEHIAKETA

OINARRIAK

1. Partehartzaileak.

Bertsopaper lehiaketa 18 urte edo gehiagoko helduei zuzendua izango da.

2. Sariak.

- Lehiaketako irabazleak 200 € eta Altzako baserrietako produktuez osatutako otarra jasoko du.
- Altzako onenarentzat: Antton Mendizabalek egindako “*Lau Haizetara*” oroigarria eta Altzako baserrietako produktuez osaturiko otarra jasoko du.

3. Eginbearra.

- a) Bertsoak gai eta doinu librean jarriko dira.
- b) Bertso sorta bakoitzak gutxienez 3 eta gehienez 8 bertso behar ditu.
- c) Lanek orijinalak, aurrez saritu gabeak, argitaratu gabeak eta euskaraz sortuak izan behar dute.
- d) Ezinbestekoa da bertso-sortaren doinuaren izena argi adieraztea.
- e) Bertsopaperak ordenagailuz idatzirik aurkeztuko dira.
- f) Lanak bakarkakoak izango dira.

4. Lanak aurkezteko modua.

Lan guztiak **posta elektronikoko bidez bidaliko dira** goitizen batez izenpetuta bizarrain@altza.net helbide elektronikora.

5. Lanak aurkezteko epea.

Lanak aurkezteko epea, **2021eko maiatzaren 14era arte** izango da (14a barne).

6. Epaimahaia eta epaia

- a) Epaimahaiaren osaketa Altzako Bizarrain Euskara Elkarteak erabakiko du. Bertsolaritzan eta euskal kulturaren nor diren bi altzatarrek eta Bizarrain Euskara Elkarteko ordezkari batek osatuko dute epaimahaia.
- b) Epaia, 2021eko maiatzaren 25ean emango da ezagutzera. Eta sari banaketa, Altzako XXI. Bertso Aroko ekainak 5eko bertso saioan izango da.

- c) Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da. Dena den, aurkeztutako lanek gutxieneko mailarik ez balute, sariak eman gabe utzi ahal izango dira.

7. Besterik.

- a) Saritutako lanen jabetza Alzako Bizarrain Euskara Elkartearena izango da. Sari-ematea burutu ostean lan hauek argitaratzeko eskubidea izango dute antolatzaileek.
- b) Saritu gabeko lanak jasotzeko, 2 hilabeteko epea izango dute egileek; bestela antolatzaileen esku geratuko dira.
- c) Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri eta baldintza horiek guztiak onartzea adierazten du.

8. Antolatzailea.



9. Laguntzaileak.

Altzania kultura-elkartea eta Alzako bertsozaleak.

Altzan 2021eko apirilaren 13an.